

!arrevuelvele, que en el culo tiene el asucar!

ALFONSO XIII. ETA VICTORIA EUGENIA ERREGIÑA GURE PARAJIOTATIK DONOSTIARA BIDIAN PASATZEN ZIRANEKO ANEKDOTA DANAK IKUTU BARREGARRI BAT DAKE. BERE MAIESTATIARI BERORRIKAKO TRATAERIA ZEGOKIXOLA JAKIN BE EZ ZEKIXEN ASKOK ETA ERDERAZ BE OZTA-OZTA MOLDATZEN ZIRANEZ... "EUSKAÑOL" GARBIXAN ZUZENDU ETA KITXO . DAKEN PIPER ETA GATZAGAITXIK GORDE DIRA JENDIAREN GOGUAN GAUR ARTE.

Errege Alfonso XII. Mercedes de Orleansekin ezkondu eta sei hilabetera alarguna zan. Maria Cristina de Habsburgo austriarrarekin ezkondu eta bi alaben ondoik Borboien dinastia jarraitzera deitxuta euan semia jaixoko zan, aitxa hil eta sei hilabetera hau be. Jaiotza egunian bertan errege izendatuko eben mutil txikitxuorren amak izango eban Estatu arazuen kargu harek, hamasei urte eñ arte. Madrilgo berotasunetik igesika eta bere jaioterriko klimiarekin zerikusi haundixaua ekalako, udaldirako Maria Cristinari Donostia gustatzen jakon. 1885ian Miramar jau-regixa estreñiatu eben, aitxa hil eta Alfonso XIII. jaixo aurretiko urtian. Donostia modan jarri zan; erregien kortiak,

noblezia eta dirudun guztixak erakarri zitxuan uztailletik urrira luzatzen ziran amaiera bako harek uda beruetara. Alfonso gaztiari ezkontzeko sasoia be aillegau jakon eta Victoria Eugenia de Battenberg ingelesa izan zan aukeratua. Kortiarene protokolo eta estutasunak itxo eitzen eben erreñexa gaztia eta kalezalia izanda, moda eta ohitxura modernuauak gizarteratzia lortu eban: zaldi lasterketa, tenis partida edo rallietara juatia, itsasoko uren baiñuak hartzia, andren erropako koloriak argitzen juatia, makillatzia... Donostiak bere eraikin esanguratsuenetan gorde dau errege-erregiñen izenaren lorrotza. Bizitza sozial haundixa eken eta hartu-emon itzela euki eben orduko sasoiko donostiarrekin eta ez hain kapi-



Alfonso XII.a eta Victoria Eugenia errege-erregiñak

talekuekin; baztarretan anekdota sinpatiko asko laga zitxuen.

"¡Qué bapa!"

Hurriñera juateko premiña barik, Mallabiko Aitxixo gaiñian bertan pasautakua ekarri bihar dogu akordura. Goiko lautadan haitz-arbola batzuk euazen, kerizpe edarrakin eta bakaloste baten Aitxixo-Etxe-

barriko etxekandriak bere ataitik kamiñu baztarrian automobil batzuk gerauta erreparau zitxuan. Dotoriak haretxek kapota bako autuak eta dotoriago barrutik urtendakuak! Severi, ahozabalik geratu da parian dakan andrakumiaren aurrian, harekin soiñeko luze eta buruko kapela fiñakin. Haren gizon bibotedunari diñotso: "ene, qué bapa,

KUS KUS
kafe antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3


Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

qué bapa es tu mujer!" Guapiori Bere Maiestate Victoria Eugenia Espaiñiako Erregina zan eta tuka tratautako gizona Erregia bera. Zuek uste dozue apaldu zanik? Bai zera! Kafia hartzera gonbidatu zitxuan, eñ barri ekala eta. Badaezpada be, kejarik euki ez deixen, mahaira etara aurretik berak bota otsen azukria. Erregiak gozotzeko zeozer bihar ebala aitzen emon zotsanian, satisfetxo erantzun berak: *"arrevuélvele (eraiñale esan ebala be diñue batzuk) que en el culo tiene el asúcar"*. Ha kafia ez zan gero ko-brau barik geratuko: berakin etxian bizi zan anaiandako kamiñero biharra lortu eban, erregiaren gomendixuakin. Erregiari holan por holan bertirako puestua etaratzen dotsana, ez zan makaleko prenda, ez. Ai, Severi, elementu edarra bera!

Eguraldixak laguntzen ez ebanian, beste paraje batzuk bisitatzia gustoko eben eta holakuetak baten Donostiarutz doiezala, Ermuko San Antonio panaderixa parian trumoi zaparrada batek atrapa zitxuan. Automobilletik bajau ume eta tramankulo guztixok eta harik eta autuaren gaiñeko toldua ipiñi arte, panaderixara sartu dira danak. Mostradore gaiñian katu mantso bal-baltz bat egoten zan beti, begi urdin-urdiñekin. Politxeitakua! Umiok derrigor eruan bihar dabela

Alfonso XIII.a San Antonion egon zan

Donostiako Kontxako erreginaren baiñu-kaseta



eta eruan bihar dabela. Bertako Juana hantxe suertau eta alperrik ez eruateko, Madrileran jua ezker be ha katu barriro etxeratuko zala. Baiña azkenian eruan dabe. Penatan emon zitxuan Juanak gaiñetiko egunak, esan eta esan: *"gure katu koi-txauak pasauko ditxu gosiak!"*. Ez ekan itxuria erregien Miramar jauregixan San Antonioko panaderixako ezkatxian baiño lapiko hobiagorik eukiko eban esperantzarik. Hirugarren egunian katu hori etxian zan, txurrinduta eta gosiak hil biharrian. Ze gitxiagorik! Donostiatik Ermura txakaxaka etorritxa zatitxo bat dago!

"¡Oye tu, Rey!"

Erregia lagunarte eta tertulixa zalia ei zan, sinpatikua eta harro usain bakua eta gus-tau eitzen jakon herriko jende apalakin berba eitxia eta eu-


ren gora-beheretaz galdetzia. Honetan eibartarrak badake ze kontau. Bitor Sarasketa eskopetagillia Alfonso XIII. ren lagun haundixa zala sarri entzundakua naz. Erregia ehiza zalia zan eta bere eskopetia bihar dan moduan zaintzeko kargua eken armeruak berakin zitxuan: garbi mantendu, golperen bat hartu ezkerotiruaren ibilbidia zuzendu, mirak alineatu... Bitor tiratzaille aparta zanez, erregiak gustoko eban bere aldran eruatia. Eta Bitorrek etxeko legez tratatzen eban *"amigo Rey"* edo *"joye tu, Rey!"* esanda berari zuzentzerako orduan. Haren esanetara euzenei larregizko konfixantzak begintxantzen jakuezen eta altua emoten zotsien, baiña erregiari grazia eitxen zotsan eta sosegatzen zitxuan esanda: *"en el mundo solo a dos personas les consiento que me traten así: a mi madre y a este señor"*.

Behin Eibartik pasau

bihar zala eta Bitorren eskopeta fabrikia ezagutzia akordau jakon. Goi eta behe, danak erakutsi zotsazen eta bihargiñen izenak erderatze-ko ahalegin berezixa eñ eban: *"mira Rey, aquí trabajan los makiñakos, ahí los limakos y arriba los matakos"*. Kosta ei jakon erregiari aitzia makiñetan eta limia-kin biharrian euazenen gaiñian akabatzailliak (pulido-riak) euazela. Esplikaixozu gero hari akabatzaillia hiltzaillia be izan leikela. Matako! Bapateko itzulpen xelebriagorik!

1931. urtian amaitxu ziran harutz-honutzok. Alfonso XIII.ak, politikako girua gehiago okertu ez zedin, bote-rea laga eban eta Erromara esiliatu zan bere famelixiakin. Egun berian II. Errepublikia izendatu zan. Erregia 1941.ian hil zan eta Victoria Eugenia 1969ian.

Estibalitz González



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71

943172665

ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*